

# Beste Ginea bat bilduman

Arabako Arte Ederren Museoa

# Un nuevo Guinea en la colección

Museo de Bellas Artes de Álava

**Anselmo Ginea Ugalde** Bilbon jaio zen, 1855ean. Bere hiriko pintoreekin hasi zuen arte prestakuntza, eta Madrilen eta Erroman eman zion jarraipena, ondoren; Italiako hiriburura bere bizitzako zenbait alditan itzuli zen, bertan bizitzera eta lan egitera. Italian egonaldiak egiten zituen eta, han ez zegoenean, Bilbon egoten zen (Marrazkigintza katedraduna zen Arte eta Lanbide Eskolan), edo Bizkaiko beste herri batzuetan, edo Parisen. Bere biografiak, zeina joan-etorriek markatua izan baitzen, eragina izan zuen artistaren pintura lanetan; geografia desberdinetako gaien eta argiaren eragina nabari zen haren obretan, bai eta ezagutu zituen pintura korronteena ere. Bilbon egindako lehen etapa hartako paisaia errealistetatik Italian bolada-boladan zegoen pintura orientalistara, historia eta ohituren pinturara igaro zen Ginea, eta XIX. mendearen amaiera aldean, Parisen egon ondoren, lengoaia inpresionista eta postinpresionista sartu zuen bere lanetan, konposizio argitsu eta arinagoen bidez.

Bere lurrarekiko loturari eutsi zion beti, eta euskal artearen berritzaile bihurtu zen, bere paisaiei eta ohituren pinturari eman zien tratamendu berritzaileari esker, beti landa munduaren gaineko ikuspegi idilikoarekin, ordurako ingurune hura eta bere bizimodua aldatzen ari zen industrializazio prozesutik urrun. 1905ean, Ginea Erromatik Bilbora itzuli zen, gaixorik, eta hurrengo urtean han zendu zen.

**Anselmo Guinea Ugalde** nace en Bilbao en 1855. Inicia su formación artística con pintores de su propia ciudad, para continuarla más tarde en Madrid y Roma; a la capital italiana regresará en distintos periodos de su vida a vivir y trabajar. Combina estas estancias en Italia con su presencia en Bilbao (donde ocupa la cátedra de Dibujo en la Escuela de Artes y Oficios), así como en otras localidades de Bizkaia o París. Su biografía, jalonada de idas y venidas, tendrá también repercusión en su obra pictórica, influenciada por los temas y la luz de las distintas geografías, así como por las corrientes pictóricas con las que entra en contacto. Del paisaje realista de su primera etapa en Bilbao, Guinea transita a la pintura orientalista, de historia y costumbres tan en boga en Italia y ya a finales de siglo XIX incorporará, tras su estancia en París, el lenguaje impresionista y postimpresionista, con composiciones más luminosas y fluidas.

Mantiene siempre el contacto con su tierra y se convierte en un renovador del arte vasco, por el novedoso tratamiento que da a sus paisajes y pintura de costumbres, siempre con una visión idílica del mundo rural, ajeno al proceso de industrialización que ya modificaba este entorno y su forma de vida. En 1905 Guinea regresa enfermo de Roma a Bilbao, donde fallece al año siguiente.



Margolaria eta haren familia Erromako estudioan. 1887.

El pintor y su familia en su estudio de Roma. 1887.



***María Artaberen erretratua***
1889
Mihise gaineko olio pintura
160 x 85 cm
2004an erosita

***Retrato de María Artabe***
1889
Óleo sobre lienzo
160 x 85 cm
Adquisición: 2004

## Obrak

Anselmo Ginea Arabako Arte Ederren Museoko bilduman egon zen lan bikainekin, zeinak bere gairik garrantzitsuenetako batzuei buruzkoak baitziren: erretratua, paisaia eta euskal ohitura eta tipoei buruzko margolanak.

***Maria Artaberen erretratua*** 1889ko data duen mihise handia da, non neskatilaren irudi itzela errealismo handiz eta teknika bikain menderatuta egina baitago; soinekoaren parpailen xehetasunek eta apaingarri dituen urrezko bitxi txikiek  eskumuturrekoa, belarritakoak eta gurutzea– erakusten dute hori. Irudiaren atzean, protagonismo handia hartzen du hondoak, zeina lausotuagoa baita eta Bakioko kostaldeko paisaia argitsua erakusten baitu. Lehen planoan, kala zuriak daude, xalotasuna eta garbitasunaren ikur diren loreak, eta, hori dela medio, badirudi hil ondoko erretratua dela.

## Las obras

Anselmo Guinea estaba representado en la colección del Museo de Bellas Artes de Álava con obras magníficas de algunos de sus temas más importantes, el retrato, el paisaje, así como los cuadros de tipos y costumbres vascos.

En ***Retrato de María Artabe***, lienzo de gran formato fechado en 1889, la imponente figura de la niña está tratada con gran realismo y dominio técnico, visible en los detalles de encajes del vestido o las pequeñas joyas de oro con que se adorna, pulsera, pendientes y crucifijo. Tras la figura, el fondo más difuminado, con el luminoso paisaje de la costa de Bakio, cobra gran protagonismo. En primer plano, las calas blancas, flores que simbolizan inocencia y pureza, parecen apoyar la teoría de que se trata de un retrato póstumo.



***Jaun baten erretratua*** 1890
Mihise gaineko olio pintura
76 x 53,5 cm
2000an erosita

***Retrato de caballero*** 1890
Óleo sobre lienzo
76 x 53,5 cm
Adquisición: 2000

***Jaun baten erretratua***, 1890ekoa, Parisera joan aurrean margotu zuen, Bilbon Arte eta Lanbide Eskolan eta bere akademian eskolak ematen zegoela. Erretratu soila da, eta pertsonaiaren psikologia erretratura ekarri izana da aipatzekoa, begien espresioan edo ahoaren keinuan ikus daitekeen bezala. Obra hura enkarguz pintatu zuen, eta Bilboko burgesiaren ordezkariren batena izango da, ziur asko.

***Retrato de caballero*** de 1890, fue pintado antes de su viaje a París, mientras se encontraba en Bilbao impartiendo clases en la Escuela de Artes y Oficios y en su academia particular. Es un retrato sobrio, en el que destaca la captación psicológica del personaje, como se observa en la expresión de los ojos o en el gesto de la boca. La obra, pintada por encargo, pertenecería probablemente a algún representante de la burguesía bilbaína.



**_Aurreskua_**
1900-1901
aldera
Paper gaineko
akuarela
450 x 300 mm
2001ean erosita

**_Aurresku_**
Hacia
1900-1901
Acuarela sobre
papel
450 x 300 mm
Adquisición:
2001

**_Aurresku,_** 1901. urte inguruan margotua, akuarelaz egindako bozetoa da –egileak menderatzen zuen beste tekniketako bat–, Luis Ocharan (1858-1928) Bilboko enpresaburuarentzat egindako sortakoa. Enkargua izan zen dekoratzea Castro Urdialesen (Kantabria) eraiki zuen Toki-Eder jauregiko jangela, hainbat neurritako margolanekin, zeinek hamaika panel estaltzen baitituzte eta herri tradizioan inspiratuta baitaude.

Pintada hacia 1901, **_Aurresku_** es un boceto en acuarela –otra de las técnicas que domina el autor– perteneciente a la serie que realiza para el empresario bilbaíno Luis Ocharan (1858-1928). El encargo consiste en la decoración del comedor del palacio Toki-Eder que se construye en Castro Urdiales (Cantabria) con pinturas de diversos tamaños que cubren once paneles y se inspiran en la tradición popular.





ANSELMO GINEA (Bilbo, 1855-1906)

***Meza nagusia Derioko elizan*** edo ***Korua***, 1898

Mihise gaineko olio pintura

93 x 164 cm

Sinadura eta data, beheko ezkerreko izkinan: A. Guinea /98

Arabako Arte Ederren Museoa. 2017an erosita

Inbentario zk.: 3387

ANSELMO GUINEA (Bilbao, 1855-1906)

***Misa mayor en la iglesia de Derio*** o ***El coro***, 1898

Óleo sobre lienzo

93 x 164 cm

Firmado y fechado en el ángulo inferior izquierdo: A. Guinea /98

Museo de Bellas Artes de Álava. Adquisición 2017

Nº inventario 3387

**Exposiciones/Erakusketak:**

1898. *IV Exposición de Bellas Artes e Industrias Artísticas.*
Barcelona, Palacio de Bellas Artes.

**Bibliografía/Bibliografia:**


- *IV Exposición de Bellas Artes e Industrias Artísticas [cat.].* Barcelona, Ayuntamiento de Barcelona, 1898. p. 75, il. b/n. p. s/p.
- "Nuevas obras de Anselmo Guinea", *El Nervión*. 17/03/1898. p. 1
- "Para la Exposición de Bellas Artes de Barcelona", *El Nervión*. 21/03/1898. p. 1
- "Notas locales", *La Vanguardia*. 18/05/1898. p. 2
- "Exposición de Bellas Artes", *La Vanguardia*. 22/05/1898. p. 4
- "De ayer a hoy", *El Nervión*. 23/05/1898. p. 2
- "Cosas del día", *La Ilustración Ibérica*. 18/06/1898. pp. 386-387
- L.C. "Exposición de Bellas Artes. V. Sala quinta", *La Dinastía*. 01/07/1898. p. 1
- "Anselmo Guinea", *Euskalzale*. 06/04/1899. p. 1
- "Un artista y una exposición en honor al malogrado pintor bizkaino D. Anselmo de Guinea", *JEL*, nº 21. 16/06/1911. pp. 336, 338, 348
- LERTXUNDI GALIANA, Mikel. *Anselmo Guinea (1855-1906). Los orígenes de la modernidad en la pintura vasca [cat.]*. Bilbao, Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2012. p. 50, 235
- "Avances Balclis", *Capital Arte*, 19. Diciembre 2016. il. col. p. 50
- "Pintura. remates", *Capital Arte*, 21. Febrero 2017. il. col. p. 62


**Premios / Sariak:**

- 1898. *Medalla*. Segunda clase. IV Exposición De Bellas Artes e Industrias Artísticas. Barcelona.
- 1898. *Premio Extraordinario Alejandro Pons*. IV Exposición de Bellas Artes e Industrias Artísticas. Barcelona.

# Eskuratu den azkena

***Meza nagusia Derioko elizan*** *edo* ***Korua***, 1989ko obra, artistak 1894tik aurrera garatu zuen joeraren barruan dago. Une hartan, haren pinturan nabarmen areagotu ziren nekazariek ospatutako erlijio errituekin zuzenean edo zeharka zerikusia zuten eszenak (bataioak, lehen jaunartzeak, erresponsuak, mezak edo prozesioak), bai eta lanari eta folkloreari eskainitako beste batzuk ere.

Artistaren heldutasuneko obra bat da, konposizio arriskutsu eta konplexukoak; zoruko diagonala du bereizgarri, eta bertan margolariak argia harrapatzen aditua dela erakusten du. Barruko eszena da, non pertsonaia desberdinek, atzeraka, belauniko edo koruko balaustradan bermatuta, goitik begiratzen baitute une horretan ematen ari den meza. Hondoko argi intentsitatea, alboetatik sartzen den argiaren ondoriozkoa, fededunek daramatzaten kandelek indartzen dute. Aitzitik, koruko pertsonaiak ilunantzean agertzen dira, argi-ilun gogor batean, kutsu gorri txikiek eta zenbait zulotatik eta zureko arrakaletatik iragazten diren kandelen argiek eragindako kontrastean. Horrek guztiak naturaltasun handia ematen dio eszenari. Elizako gurutzadurako



***Meza nagusia Derioko elizan*** edo ***Korua***
1898
Mihise gaineko olio pintura
93 x 164 cm
2017an erosita

# La nueva adquisición

***Misa mayor en la iglesia de Derio*** o ***El coro***, obra de 1898, está dentro de la tendencia que el artista desarrolla a partir de 1894. En ese momento, en su pintura hay una importancia creciente de escenas vinculadas de manera directa o indirecta a la celebración de ritos religiosos por el campesinado (bautizos, primeras comuniones, responsos, misas o procesiones), además de otras dedicadas al trabajo o al folklore.

Se trata de una obra de madurez del artista, con una composición arriesgada y compleja, marcada por la diagonal del suelo y en la que el pintor muestra su dominio en la captación de la luz. Es una escena de interior donde distintos personajes, de espaldas, arrodillados o apoyados en la balaustrada del coro, contemplan desde lo alto la misa que se está celebrando en esos momentos. La intensidad luminosa del fondo, provocada por la luz que entra por los laterales, se ve reforzada por los cirios que portan los fieles. Por el contrario, los personajes del coro aparecen en penumbra en un fuerte claroscuro, contrastado por pequeños toques rojos y por la luz de las velas que se filtran a través de



***Misa mayor en la iglesia de Derio*** o ***El coro***
1898
Óleo sobre lienzo
93 x 164 cm
Adquisición: 2017




Bartzelonako arte ederren eta arte industrien erakusketa. 1898.

Exposición Bellas Artes e industrias artísticas de Barcelona. 1898.

gangetan, nabeetako botozko opari batzuk daude zintzilik, eta horrek jende horren jainkozaletasunaz hitz egiten digu.

Obra honekin, Gineak *Arte Ederren eta Industria Artistikoen IV. Erakusketan* parte hartu zuen, Bartzelonan, 1898an, eta bigarren mailako domina eta Alejandro Pons aparteko saria jaso zituen. Pieza erakustaldiko katalogoan kopiatu, eta garaiko zenbait egunkaritan aipatu zen, bai Bilbokoetan, bai Bartzelonakoetan (*El Nervión*, *La Vanguardia*, *La Ilustración Ibérica*). Bartzelonako bilduma partikular batetik dator, eta eskuratu zenean Leioako (Bizkaia) bilduma partikular batean zegoen.

algunos agujeros y grietas de la madera, lo que da a la escena gran naturalidad. Suspendidas de las bóvedas del crucero de la iglesia, cuelgan varios exvotos de naves, lo que nos habla de la religiosidad de estas gentes.

Con esta obra, Guinea participa en la *IV Exposición de Bellas Artes e Industrias Artísticas* celebrada en Barcelona en 1898 y por la que obtuvo medalla de segunda clase y premio extraordinario Alejandro Pons. La pieza fue reproducida en el catálogo de la muestra y mencionada en distintos periódicos del momento tanto de Bilbao como de Barcelona (El Nervión, La Vanguardia, La Ilustración Ibérica). Proviene de una colección particular de Barcelona y en el momento de su adquisición se encontraba en una colección particular de Leioa (Bizkaia).




Arabako Arte Eder Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

Fray Francisco ibilbidea, 8
Paseo de Fray Francisco, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
945 181 918
museobellasartes@araba.eus



**Koordinatzailea / Coordina:**
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

**Textuak / Textos:**
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

**Argazkiak / Fotografías:**
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava
Javier Agote
Gert Voor in´t Holt
Archivo privado

**Itzulpena / Traducción:**
Euskara Serbitzua (AFA)
Servicio de Euskera (DFA)

**Argitaratzailea / Edita:**
Arabako Foru Aldundia
Euskara, Kultura eta Kirol Saila
Diputación Foral de Álava
Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

**Inprimatzailea / Impresión:**
Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia
Imprenta de la Diputación Foral de Álava

**Lege Gordailua / Depósito Legal:**

**Erakusketa datak**
**Fechas exposición:**
Martxoa-Iraila 2018
Marzo-Setiembre 2018



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da erronka*
*El reto es Álava*